

**Jordi Colominas**en hitzaldia.

**Fira de Teatre Al Carrer de Tàrrega**-ren zuzendari artistikoa.

## “KALEKO ARTEAK PRGRAMATZEKO IRISPIDE ETA PARAMETROAK”

### TÁRREGAKO FIRA: SORMENARI AIRE LIBREAN EGINDAKO BEGIRADA IREKI ETA PLURALA

Tárregako Fira delako azokan, kalean egiten den arteari gure pertsonalitatea erantsi nahi izan diogu, betidanik izan baitira guretzat erreferentzia puntu garrantzitsua. Hala ere, estilo aniztasuna erakutsi nahi dugu zeregin horretan; forma desberdinak, lengoia desberdinak. Betiko topiko eta lekuetatik ihes egin nahi izan dugu. Ustekabearen eta sorpresaren alde.

Ikuskizun berezien aldeko apustua egin nahi dugu, ohiko espazioetatik ihes egiten dutenak, ikuslearen eta aktorearen artean harreman berri bat proposatzen dutenak; hau da, jolas berri bat, erritu berri bat.

Tárrega erreferentziatzeko ikuskizunak ikusteko agertokia izatea nahi dugu; gure ikuspegia eta gure sortzaileena hedatzea ahalbideratuz, gure asmatzaileak aberastuz, joera eta sortzaile berriak ezagutzeko aukera emanez... Horrelako ikuskizunak oso gutxitan egoten dira ikusgai gure herrian; halaber, hala ere, erreferentzia berriak ekartzen dituzte artearen sorkuntzan.

Eta adi-adi egon nahi dugu, era espazio irekietan lanean diharduten Europako sortzaile berriek zer egiten duten. Sortzaile horiek, izan ere, klima berri baten bila dabilta, ohiko espazioetatik ihes; dramaturgia berriak nahi dituzte, erritu berriak: espazio bitxi batean esperientzia bitxia konpartitzen duten ikusle-taldea, alegia.

“Egun on. Ondo esan duenez, Jordi Colominas naiz. *Fira de Tàrrega* azokako zuzendari artistikoa naiz. Nire lehen urtea izan da, duela urtebete izendatu baininduten. Hortaz, duela oso gutxi, irailaren hasieran, 2008ko Fira amaitu zen. Azaldu nahi dizuet, labur-labur, nolakoak diren irizpideak, zer helburu eta zer asmo ditugun, zer iruditeria birstortu nahi dugun. Zer lehentasun ditugun, zer joko-arau ezarri dizkiogun geure buruari programazioa egiterakoan. Kontuan izan behar dugu Tárregakoa oso jaialdi instituzionalizatua dela, duela 27 urte hasi zena. Hau da, programazioa egitea, edo hobeto esanda, programazioa egitean, baldintza asko hartu behar dira kontuan; hau da, hainbat eta hainbat gauza hartu behar dira kontuan. Batzuetan, iruditzen zait hipopotamo handi bat garela, hipopotamoak bezala motelak garela, mugitzen kostatzen zaigula, nolabaiteko zailtasuna dugula, baina dena den, oso pozik nahi lehen urte honetan gertatutakoarekin.

Uste dut lortu egin dugula gure helburuak zein diren azaltzea. Gero, jaialdiaren joera

guztien eta hura osatu duten ikuskizunen ikusizko gainbegiraturia egingo dugu. Baina, batez ere, azaldu nahi nuke kale-antzerkiaren alde egin nahi dugun apustua, kale-antzerkiaren zabaltasunik handiena, aniztasunik handiena eta aberastasuna ulertuz. Topikoak saihestu nahi ditugu, eta horrek, benetan, obsesionatu egiten gaitu. Gure ustez, oso sarri, banaketa homogeneoegia nagusitzen da kale antzerkian, eta hori dela eta, askotan, aurreikusgarritasun absolutuko termino jakin batzuk elkarbanatzen dira, eta denak balio duela adierazten duen iruditeria bat sortzen du antzerkian. “Denak balio du” esaten dudanean, irudipen honengatik da: guk, batzuetan, guk geuk gure burua zigortzen dugu, eta ikuskizunaren munduko engranjeko anaia pobrea gara, eta oso sarri, *déjà vu* delakoa etengabe gertatzen dela iruditzen zait, topiko eta egoera ohikoegietara jotzen dugula, beraz. Oso sarri, kale-antzerkiari buruzko ikuspegi erromantiko eta idealizatuegi batekin zerikusi handia duen planteamendu bat da. Gure ustez, beharrezkoa da zeharo erromantikoa den faktore horrek (ibiltaritzaren eta ikuskizun ibiltarien aldarrikapena, askotan aurrera baino gehiago atzera –hots, iraganera– begira dagoena, aspaldiko estetika, irudi, musika eta giroak birsortzen dituen) existitzen jarraitzea, elementu guztiak elkarrekin egotea. Baina hau nahi dugu, nolabait: egoera hori orekatu eta, batez ere, aniztasun horren aldeko apustua egin, gune publikoak zentzu zabalean erabiltzeko modu, hizkuntza eta teknikak erakuste aldera, gune irekiak erabil daitezzen, ohikoak ez diren guneak erabil daitezzen. Ikuslearen eta aktorearen arteko harremana sortzeko modu berriak aldarrikatzen dituzten konpainien eta ikuskizunen alde egiten dugu. Jokoa, harreman jokoa eta antzezte errituala ere aldatu egiten dituztenen alde egiten dugu. Eta hori gure baliabideak aintzat hartuta, lan egiteko baldintza asko eta askotariko konpromisoak ditugula kontuan hartuta, baina saiatuko gara, ahal den neurrian, hori gure diskurtsoaren oinarritzko ataletako bat izan dadin. Alegia, ohikoak ez diren guneak, gune irekiak, gune publikoak aukeratzeko dituztenen lan kolektiboa izan dadin oinarritzko atal hori. Eta kontuan hartu behar da kale esateak plaza esan nahi duela, balkoiak esan nahi dituela, basoak esan nahi dituela, merkatua, metroa esan nahi duela. Tárregan ez dugu metrorik, baina iritsiko da. Planteamendu aniztasuna esan nahi du. Baita dimentsio aniztasuna ere. Uste dut askotan, ekonomia dela eta, merkatua dela eta, ikuskizun txiki-ertainak soilik egiten direla. Beharrezkoa da, bizia da, sendoa da, baina ikusten dugu, Tárregan ere, nolabait, ikuskizunak formatu handiko ikuskizunetara hel daitekeela ikusi nahi dugu, beste erregistro bateko eta beste magnitude bateko esperientziak izateko. Horiek dira, *grosso modo*, gure planteamenduak, eta horrez gain, garaikidetasunaren alde, gaurkotasunaren alde egiten dugu. Sentitzen dugu kale antzerkian ikusi ohi ditugun gauzen iruditeriaren zati bat, askotan, eta hori askoz gehiago nabaritzen da, arreta Katalunian jartzen badugu... Nik uste dut hemen, ez daki oso ondo zergatik, baina hemen guk baino askoz ikuspegi zabalagoa duzuela... hemen, Euskadin esan nahi dut... ikuspegi zabalagoa, pluralagoa. Jaiaren eta animazioaren baldintzatzaileek eragin handia izan dute, handi-handia, kale antzerkian ikus ditzakegun sorkuntza gehienetan, ekoizpen gehienetan. Esaten nuen gaurkotasunaren alde, garaikidetasunaren alde, egiten dugula, bai hizkuntzen eta formen aldetik, bai diskurtsoaren aldetik; alegia, nekez aurkituko dugu Katalunian gaurkotasunaz,

gertatzen ari denaz, interesatzen denaz, kezkatzen gaituenaz edo gaurko herritarren erreferentziaz aritzen den ikuskizunik. Esaten ari nintzen Donostian prentsaurrekoan aurkeztu zenean parte hartu zuten euskal ikuskizunak... “Trapu Zaharra” eta “Iñaki Mata” ikuskizunak zeuden... Benetan egungo gauzei buruz hitz egiten duten bi proposamen ziren. Garaikidetasunaz aritzen ziren, gaurkotasunez aritzen ziren. Askoz errazagoa da, barkatu, oso, askoz zailagoa da hori Kataluniako arte ekoizpenean aurkitzea. Hori da asmoa, nolabait. Hau ez da jaialdi bat, zehatz-mehatz. Azoka bat gara; neurri batean, jaialdi bat, eta beste neurri batean, jaia. Laurogei edo laurogeita hamar mila pertsonak har ditzakete kaleak. Gehiegikerietan bizi gara. Badugu... baina horri dagokionez, jaialdi alderdi horri esker ekarri edo programa ditzakegu atzerriko ikuskizunak, gure sortzaileei beren iruditeria berritzeko aukera emateko, beren ikuspegia apur bat zabal dezaten, kanpoan zer egiten ari diren ikus dezaten, joerak sor ditzaten. Izan ere, gainera, uste dut, nire belaunaldian ez bezala —garai hartan, gauzak ezagutzeko jakingura asegaitza genuen—, gaur egun jendeak oso gutxi bidaiatzen duela. Iruditzen zait jendeak kanpo erreferentzia gutxi dituela. Kasu askotan, hainbat zailtasun ditugu Espainiako estatuan Europako kale antzerkian egiten ari diren gauzak ikusteko, gauza aurreratuagoak ikusteko, bideak irekitzen dituzten gauzak ikusteko, joera adierazten duten gauzak ikusteko. Eta horiek dira geure buruari ezarri dizkiogun gauzak: neurri batean, Tárrega erakustoki handia izatea nahi dugu, gune publikoak, gune irekiak, erabiltzeko askotariko moduen artean, ahalik eta sorkuntzarik garaikideenak ikusteko aukera izan dezagun; bereziki, nire ustez une honetan eredu ezartzen duten eta lanik interesgarrienak egiten ari diren herrialdeetatik —batik bat, Herbehereetatik eta Belgikatik— datozen sorkuntzak. Edonola ere, gustatuko litzaidake aurtengo programazioko ikuskizun batzuk labur-labur gainbegiratzea; hain zuzen, aipatzen ari garen eredu horiei jarraitu nahi dieten ikuskizunak gainbegiratzea. Haietako bakoitzari buruzko azalpen txiki bat egingo dugu.

Aurten, Firaren filosofia —nolabait, hurrengo urteetako azoka markatuko duena— Firako egituraren bidez sortzaileei ahalik eta laguntzarik handiena ematea da; hasiera batean, Kataluniako sortzaileei, Espainiako estatukoak ere aintzat hartuta, baina bereziki, sortzaile katalanei. Izan ere, gure taldeak horretarako aukera ematen du, eta lau egunean zehar produktuak erakusten dituen erakustoki hutsa ez izateko asmoa dugu; alegia, laguntzeko lan jarraitua egin dezakegu. Hori dela eta, urte honen amaieran Deambulants konpainiarekin hastea erabaki genuen. Aireko dantza lantzen du konpainia horrek, dantza bertikala; akrobaziarekin lotzen du dantza, ikusgarritasunarekin. Formatu handian lan egiteko apustu handia egin dute, eta aurtengo Firari eman zioten hasiera, hemen egiten ari diren ikuskizunarekin: egitura handi batekin, obra edukiontziekin osatutako piramide handi batekin. Ikus daitekeenez, asmo handiko ikuskizuna da, bai planteamenduen aldetik, bai dimentsioaren aldetik. Eta *Tir* izeneko ikuskizun bat gure apustu handietako bat izan zen, norabide jakin batean: dantza bertikalaren eta formatu handiaren norabidean. (Irudi aldaketa) Nire ustez, horrelako ikuskizunek zer esana ematen dute Tárregan eta lanbideko zenbait sektoretan. Eta

beste ikuskizun bat ere oso apustu ausarta zen, Herbehereetako Dakar konpainiarena<sup>\*</sup>: *Braakland* izena zuen ikuskizun horrek. Ikuskizun horrek lehen aipatu dudan asmoa adierazten du: kanpoan zer gertatzen den erakustekoa, joera nagusiak zein diren erakustekoa, antzerkia aldarrikatzekoa. Kontuz, askotan, nahasi egiten gara: antzerkiaz hitz egiten dugu kale antzerkiaz hitz egin nahi dugunean, eta kale animazioaz hitz egiten ari gara. Gauza asko aldarrikatzen ditugu, baina bereziki, antzerki izaera, lanketa dramatikoak, aberastasun hori guztia. Eta kasu honetan, paisaiarekin harreman handia duen jendea da. Paisaia oinarritzekoa da haien lehen antzerki ikuskizunean. Ikusleek aire zabalean dagoen leku batera joan behar dute. Tárregan, 6 km-ra zegoen leku hori. Eta oso proposamen gogorra zen, eta bagenekien horrelako proposamenak izugarri gustatzen zaizkiola ikusleen %50i, eta beste %50ak eraso egiten diotela uste du, edo ez zaio batere interesatzen. Egiaz, inor epel utziko ez dion ikuskizuna da. Eta erritualak goitik behera birplanteatuko duen ikuskizuna da, giro berezi bat sortu nahi duena, eta giro horretan, isiltasunak, paisaiak eta antzerki-izaera erradikalak itzelezko indarra dute. Ireki dugun bidea da. Askotan sinisten dugu bide horretan, eta horretan aurrera jarraitu nahi dugu. Ingelesek *Site Specific* esaten diote. Herbehereetan, *esperientziaren antzerkia* esaten diote, uste dut, antzerkiaren konbentzionaltasuna gainditzen duen esperientzia bat proposatzen denean. Batzuek *emozioen antzerkia* esaten diote, eta frantsesek, *in situ* antzerkia. Izen asko ditu. Dena den, niri antzerkia esatea interesatzen zait. Ikuskizunaren irudi batzuk dira hauek. Azken horiek Tárregan hartuak dira. Jende askoren ustez, ikuskizun horrek eztabaida bat sortzen du, nolabait: Zilegia da kalea ixtea? Zilegia da esparru bat ixtea? Hori frantsesekin gertatzen da bereziki. Oso diskurtso erradikala eta ideologikoa eratu dute kale antzerkiaren inguruan. Diskurtso horren arabera, kale antzerkia antzerkirik herrikoiena da, eta demokratikoa, antzerkiera nekez hel daitekeen jendea har dezakeena. Baina gaur egun, nire ustez, izugarritzko krisialdian daude; izan ere, teoria oso bat eta ideologia oso bat eratu ondoren, gorputzak eskusibotasuna eskatzen die. Frantziako konpainiarik garrantzitsuenek gero eta ikuskizun mugatu gehiago proposatzen dituzte; hain zuzen ere, ikusle kopuru mugatuentzat. *Labalis*<sup>\*\*</sup>: 24 lagun autobus batean; *L'Femme*: 72 lagun emanaldi bakoitzean; eta *Burnité*<sup>\*\*</sup>: 200 lagun, eta lautadara eramaten zaituzte. Bada, eztabaida handia dago Frantzian horren inguruan. Edonola ere, aniztasuna erakusteko borondatea mahaigaineratu genuen. *Dakar* ikuskizunaren alde egin genuen, baina baita, aldi berean, *Sensazione* ikuskizunaren alde ere. Ikuskizun hori orain hemen ikusten ari zareten koprodukzioa da. Belgikako bi konpainiaren koprodukzioa da. Atrakzio parke bat da, erabat berria, erabat desberdina, antzerki-izaera handikoa, oso logikoa, eduki handiko mezuak igortzen dituen. Hau da, atrakzio parke iraunkorra da, gizakien eta animalien energiari esker funtzionatzen duena. Esaten nuen moduan, antzerki izaera handia du, eta proposamen guztiz dibertigarria, eta familia osoarentzat pentsatuta dago. Zeharo desberdinak diren erregistroak erakusteko borondate horri jarraituz, Ingalaterrako Cirque Idylic konpainiak erdiz erdi kabareta eta zirkua zen ikuskizun bat aurkeztu zuen. Oso ikuskizun heldua zen, oso ikuskizun barrabana, apur bat perbertsoa, kabareteko eta zirkuko teknikak nahasten zituena. Italiako Faber Theater

konpainiak ikuskizun ibiltaria egiten du kale eta plazetan zehar. Alderdi askotako konpainia da, baina jatorriak herri musikaren munduan ditu, folk musikaren munduan. Herri abestiak eta dantzak eramaten dituzte batetik bestera, Mediterraneoko melodiak eta koreografiak. Leandre clownik interesgarrietako bat da, edo gutxienez, nazioarte mailan etorkizunik handiena dutenetakoa; izan ere, askotan aritu da Europako jaialdi handietan. Kalitatearen aldeko apustu handia egiten du. Eta gai horretaz ere hitz egin nahi nuke. Eta uste dut gure ekoizpenak egiteko, oso sarri, denak balio duela. Nire ustez, hasi behar dugu bikaintasun hitza eta antzekoak aintzat hartzen; hau da, utzi behar diogu nota eskasekin (gutxi, nahiko, ondo...) konformatzeari, eta saiatu behar dugu maila handiagoko ikuskizun eta programazioak egiten, nota handiagoa (oso ondo eta bikain) ateratzeko. Laburbilduz, uste dut oso komenigarria dela hausnarketa ariketa bat sarri egitea, eta askoz anbizio handiagoa izatea. Leandre clownaz hitz egiten jarraituko dut, balio horiek biltzen baititu bere baitan; izan ere, balio horiengatik nabarmentzen da. Izugarri perfektionista da eta kalitatearekiko obsesioa du, eta hori dela eta, Europako kale antzerkiaren jaialdi nagusietan hartu du parte.

Bestelako moduez eta joerez ari gara, askotarikoez, alegia. Hau asmakizuna da, Antigua y Barbuda konpainiaren feriako barraka baten iraultza bat, oso istorio kutuna nire ustez. Taberna batean gertatzen den istorioa da, gaixotasun arraro bat duen mutil batena... ez dakit zer gaixotasun den... burbuila umeena. Ezin dira kanpoaldean egon, eta burbuila baten barruan egon behar dute. Jendearekin harremanetan egoteko, gurasoekin lekuetara joateko eta gauza asko egiteko zailtasun edo ezintasun horren aurrean, tresna hori eginarazi du. Mutila burbuilaren barruan dago. Kasu honetan, ezker aldean ikus dezakezue. Eta burbuila horretatik, hainbat mekanismo eta automatismo kontrolatzen ditu, eta horien bidez, botilak hartu eta edariak zerbitzatzeko ditu, etab. Ohiko ferietako barraka baten eta *performance* instalazio baten arteko nahastea da, antzerki istorio batean, ukitu berezi horrekin. Beste gauza askoren artean. Kataluniako Antigua y Barbuda konpainiaren proposamena da; hain zuzen, izugarri sortzaile bitxi batena, Jordá Farré-rena. Mistika poetikoz inguratutako errituala da. Antzezlaneko protagonista ere oso bitxia da, arte garaikidean aritua, hainbat erregistrotan aritua. "Kiku Mistu" da, argazki honetan ikusten edo sumatzen duzuen da. Sufi jatorrizko oso ipuin *naïf* batzuk kontatzen zituen, eta ipuin horietan oinarrituta, ikuskizunaren titulua "Historia para hombres y mujeres buenas" da. Hona hemen konpainiaren argazki bat.

Hitz egin dezagun La Invenció konpainiaren ikuskizunaz. Ez zen ikuskizun bereziki bitxi bat, baina konpainia horren aurreko ikuskizuna azaltzeko aukera ematen dit. Agian, ezagutuko duzue. Edukiontzia baten barruan gertatzen den ikuskizun bat du, eta edukiontzia horren barruan, aktore ikusleak sartzen dira. Ikuskizun hori lehen aipatzen nizuen korrante horretan sartuko litzateke, "esperientziaren antzerkia", "emozioen antzerkia" delakoan. korrante horretan, informazioa bezain garrantzitsua da informazio hori nola biltzen den. Gauza bera esan behar dugu berriro: axolagabe uzten ez duen ikuskizuna da. Hemen ikusten dituzuen ate horiek itxi

egiten ziren eta ondo, gogorutzen badut, ikusleak ilunpetan zeuden ikuskizuneko lehen hamar minutuetan. Horrek izugarritzko eraso egiten zien ikusleen intimitateari eta bizi espazioari. Irudimenari buruzko metafora biribila da, jendeak nola bidaiatzen duen eta Espainiara nola iristen den azaltzen duena.

Animazioa ere izan genuen, jai animazioa ere izan genuen. Esaten nuen... gehiago aldarrikatu eta gehiago sustatuko ditugu gauza jakin batzuk, gure ustez haiek behar baitute nolabaiteko laguntza, baina horrek ez du esan nahi beste erregistro bateko antzezlanak ez ditugunik. Eta hemen dago nire ustez ondo ezagutzen duzuen ikuskizun bat. Hemendik antzeztu izan dute. Leioako antzerki azokan egon da eta epaimahaiaren saria irabazi zuen. Bestelako ikuskizuna da, harrigarria, aipatu izan ditudan premisekin bat datorrena. Harrigarria da, eta ezin da aurretik jakin zer gertatuko den, erritual garaikidea eta guztiz berritzailea proposatzen digun neurrian. Gaztela eta Leongo Alquimia 130 konpainiak dotoretasun poetiko handiko ikuskizun bat antzeztu zuen: *Alma Candela*. Horrez gain, soinu banda iradokitzailea eta oso aberatsa du ikuskizun horrek, zuzenean interpretatua.

Oso bestelako norabide batean, Euskadiko Kukai eta Logela Multimedia konpainiek *Latidos* ikuskizuna eskaini zuten. Errepasoarekin jarraituko dut... *Vagalume*, *A cuadros*, Eskoziako mitoak birsortzen zuen jai proposamen ibiltaria. Lehen aipatu izan dizuen. Proposamen hori bereziki interesatu zitzaidala esan nizuen, eta arrazoi askogatik interesatu zitzaidan; besteak beste, oso erakargarria delako, hainbat osagairen ondorioz. Ikus inpaktua da, sua da... Norbaitek txotxongiloen munduan sailkatu zuen. Ez dakit hain protagonismo handia ematera ausartuko nintzatekeen, baina argi dago elementuarekin jolasten dela, delako pertsoniarekin, eta lehenago aipatu dudana —gaurkotasuna— betetzen duela. Izan ere, gizartean eztabaida sortzeak gizarte presio handia eragiten du. Iñaki Mataren ikuskizunak oztupoak dituen lekuren batean egitea eskatzen du, eskailerak eta zailtasunak dituen leku batean egitea. Tárregan, gurpil aulki batean zegoen gizon bat zegoen, eta bien artean, hitzik gabeko elkarrizketa zoragarria sortu zen. Lehen esaten nuenagatik, ez delako ohikoa osagai horiek dituzten proposamenak aurkitzea. Deabru Beltzak konpainiak perkusioa eta piroteknia nahasten du, gure iruditerian ohikoago aurki daitezkeen bi elementu.

Kataluniako Senza Tempo konpainia, dantza garaikidekoa. Ikuskizun horrek bazituen zera batzuk, baina ez zuen izan gure ustez merezi zuen proiektzioa eta eragina. Eta ikuskizun horren erregistroa kaleetan eta plazetako ikuskizunetan aurki dezakeguna da, zirkua eta umorea konbinatzen baititu. Hona kalitatezko bi proposamen, aberastasun handiko bi proposamen: Los 2 Play konpainiarena eta Los Gingers konpainiaren *Perlas y plumas*. Bi ikuskizun horiek Euskadiko hiri batzuetan ikusteko aukera izan da.

Eta lehen ere esaten nuen askotan kale antzerkia animazioarekin nahasten dugula,

jaiarekin nahasten dugula. Hori oso nabarmena da Katalunian. Hori dela eta, nolabait, obsesionatuta gaude, animazio ikuskizunak, hirian zehar ibiltzen direnak eta ikusleek kantoian buelta emanda ustekabeen aurki ditzaketenak zeharo desberdinak izan daitezen, hainbat erregistrotakoak izan daitezen, ikusleak harri eta zur uzteko. Hori izan zen obsesioetako bat, nolabait esateko, programazioa egiterakoan, eta horregatik, bila eta bila aritu ginen. Berazi, topiko eta gauza jakin batzuk eze errepikatzen saiatu gara. Kasu honetan, gauza erraz bezain sendoen alde egin genuen. Zentzu horretan, Pomme D'or-en alde egin genuen. Piano motordun batean, edozein hiritako kaleak zeharkatzen ditu. Oinak erabiltzen ditu pianoa gidatzeko, eta oso erreperitorio zabala du: herri klasikoak, jai giroko abestiak (*Ralph Time Scoot Jopli*\*)... Hor ikus dezakezue, profilez. Musika ere nahi genuen, musika ibiltaria nahi genuen, baina, nolabait, barre egin nahi genien ohiko bandei, haize instrumentuen bandei, metal instrumentuen bandei. Kasu honetan, Frantziako konpainia hori aukeratu genuen. Sei gitarra elektriko dituzte, eta horrek sendotasuna ematen die. Anplifikadoreak eta sorgailu txiki batzuk herrestan eramaten dituzte, modu bitxi batean. Bestelako soinua dute, eta beste dimentsio bat. Kataluniako konpainia batek *Kamchatka* ekoizpena ikusten ari zarete. Ikuskizun ibiltaria da, eta ez dago jakiterik zehatz-mehatz zer diren: errefuxiatuak diren, ihesian dabilzan, immigranteak diren... Konpainia horrek jolas eta probokazio arteko zerbait egiten du ikusleekin. Eta hemen, Trapu Zaharra duzue. Gaurkotasanaren zentzu hori dela eta, gaur egun, hizkuntza da, beren hizkuntza bilatzen ari dira, eta beste animazio elementu bat. Hauek guztiak altxorren bilduman sartu ditugu. Ez dakit oso pedantea den horrela adieraztea, baina altxorak dira, oso bereziak, eta bat datoz iruditeria jakin batzuk iraultzen dituzten planteamenduekin. Dena den, kasu honetan, *Paka, the Uncredible* suzko zaldi handi bat da, eragin eszeniko handia duen tramankulu mekanikoa.

Hau izan da, gutxi gorabehera, Tárregako programazioko edukien eta programazioa egitean kontuan hartzen ditugun asmoen errepassoa. Hau izan da nire lehen urtea zuzendari gisa. Datozen urteetan, printzipio adierazpen horrekiko leialtasunari eusten saiatuko gara, gure posibilitateak kontuan hartuta Tárrega sormenari lehentasuna emango dion gunea izan dadin. Hemen, etapa berri honetan, eslogan bat sortu dugu: Tárrega lurraldea, sormen lurraldea. Esaldia egoki samarra da; borondate adierazpen bat izatea dugu helburu, bai eta, aldi berean, Tárrega kale antzerkiaren mota eta ikuspegi guztiak bilduko dituen gunea izatea, ahalik zentzurik zabalenean eta askotarikoenean, berrikuntzaren, garaikidetasunaren, anbizioaren, kalitatearen eta bikaintasunaren bila.”

---

\* Dakar: Belgikako konpainia